

**INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEA**  
**COMISIÓN VASCA DE ACCESO A LA INFORMACIÓN PÚBLICA**

**1/2016 AKTA**

2016ko urriaren 19ko 15:00etan, Gasteizen, **INFORMAZIO PUBLIKOAREN SARBIDERAKO EUSKAL BATZORDEAREN OSOKO BILKURA** biltzen da, horretarako egindako deialdiaren ondoren. Ertzean adierazitako batzordekideak etorri dira eta hau izan da gai-zerrenda:

1. Batzordearen eraketa // Constitución de la Comisión.
2. Batzordearen Lan eta barne prozedurak // Procedimientos de trabajo de la Comisión.

**BATZORDEBURUA:**

Javier Bikandi Irazabal  
jauna

**BATZORDEKIDEAK:**

Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino andrea  
Ana Arkotxa Azkue andrea

**IDAZKARIA:**

Ana Arkotxa Azkue andrea

Batzordeburuak ongietorria eman ondoren eta Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeko kide guztiak, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2016ko urriaren 6ko Aginduz izendatutakoak, egonda, Batzorde hori formalki eratutzat jotzen da.

Ondoren, batzordeburuak hartzen du hitza gai-zerrendaren hurrengo puntua lantzeko eta, behar diren eztabaiden ondoren, hemen adierazten diren erabakiak hartzen dira.

1.- Idazkari lana txandaka beteko dute bi batzordekideek, eta Ana Arkotxa andrea hasiko da.

2.- Batzordearen iritziazen pean jarritako gaiak aztertu eta ikertzeko batzordekideek ebazpeneko txosten edo proposamen bat egin eta aurkeztuko dute.

Batzordeburuak txostenen lana banatu eta batzordekidea izendatuko du txandaka. Batzordeburuak, ordea, beste batzordekide bati esleitu ahalko dio gaia haien artean lan-zamaren esleipen orekatua egiten dela zaintzeko.

Batzordeburuak proposatuta, lehenengo txostena Ana Arkotxa andreaki esleitzen zaio.

3.- Batzordekideek gehiengoaren iritziarekin bat datorren edo ez datorren boto partikularra eman ahalko dute.

4.- Ematen diren ebazpenak errekurtsio-jartzaileari eta interesdunei jakinaraziko zaizkie; dauzkaten datu pertsonalak kendu ondoren, GARDENA gardentasunaren atarian argitaratuko dira, eta Arartekoa haien jakinaren gainean jarriko da, 128/2016 Dekretuaren 4.2 artikulua xedatzen duenez.

Halaber, bilkuren akten edukia argitaratuko da, dauzkaten datu pertsonalak kendu ondoren.

5.- Bilkuren periodikotasuna etorkizunean egingo den bilera batean aztertuko da.

6.- Datu pertsonalak Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko azaroaren 28ko Aginduan (fitxategi automatizatuei buruzko Agindua, 2014-12-30eko EHAA) araututako "Herritarrekiko harremanak" fitxategian sartuko dira. Izan ere, fitxategiaren helburuetako bat gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legeak araututako moduan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea erabiltzea da.

Azkenik, batzordeburuak jakinarazi duenez, 128/2016 Dekretuaren 2.2 artikuluan aurreikusitako ordain ekonomikoa kudeatzen ari da eta lehenengo erreklamazioa jaso da.

16:35ean batzordeburuak saioa eten du eta urriaren 27an berrekin zaio 11:00etan.

Batzordeburuak saioa eten aurretik aztertzen ari ziren gai-zerrendaren puntuari heltzen dio berriz eta, organoaren eginkizunei buruz eztabaidatu ondoren, hau erabakitzen du Batzordeak:

1.- Bere funtzionamenduan, hauek arautuko dute Batzordea: irailaren 13ko 128/2016 Dekretuak, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeari buruzkoak, hark onartzen duen barne-araudiak eta, subsidiarioki, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio-prozedura erkideari buruzkoak.

2.- Barne-araudia egiteko, beste gai batzuen artean, organoaren eraketa baliozkoa izateko eta erabakiak hartzeko quoruma, batzordeburuaren eginkizunak, batzordekideen eskubideak eta betebeharrak, erreklamazio-espeditenteak kudeatzeko tresnak, organoaren gardentasunerako gauzatu behar diren ekintzak eta erreklamazioen baten helburuari lotutako interesdunei eta hirugarrenei entzuteko aukera aztertuko dira.

3.- Batzordearen ebazpenak administrazioarekiko auzibidean defendatzea Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Zentralarekin aztertuko da.

4.- Jasotako lehenengo erreklamazioari dagokionez, dagokion administrazioari helaraztea eta alegazioetarako epea ematea erabakitzen da. Halaber, erreklamazioa jaso dela jakinaraziko zaie erreklamaziogileei.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez gero, batzordeburuak amaitutzat jo du saioa 13:15ean.

**Idazkaria**  
**Ana Arkotxa Azkue**

**Batzordeburua**  
**Javier Bikandi Irazabal**

**Batzordekidea**  
**Koldobike Uriarte Ruiz de Eguino**